

AuzoEkin Tolosa (2025)

5 Eremua: San Esteban



4. tailerra: Proposamenak antolatu eta iragaztea

Lekua:

San Esteban auzoko Auzo Elkartean

Data:

2025eko urriaren 29an, asteazkena. 18:00-20:00

Parte-hartzaileak:

- **Talde Eragilearen ordezkariak:** 4 pertsona
 - 3 emakume
 - Gizon 1
- **Dinamizazio taldea:** María Alonso (Aise kooperatiba)

Sarrera:

Saioaren helburua parte-hartze prozesuan zehar jasotako proposamenak berrikustea, ordenatzea eta iragaztea izan zen, eremuko estrategiarekin eta AuzoEkin proiektuaren balioekin bat datozela bermatuz.

Lan honetarako, hainbat bidetatik jasotako proposamenak hartu dira kontuan:

- 3. saio irekian jasotako proposamenak.
- Erabaki.tolosa onlineko plataformaren bidez jasotako proposamenak.

Lantalde txikian, parte-hartzaileek - talde eragileak hautatutako ordezkaritza bat - ekarpen guztiak aztertu zituzten, bikoiztasunak identifikatu, bideraezinak edo eskumenetik kanpokoak baztertu, eta anbiguotasunak birformulatu eta zehaztu zituzten, errazago ulertzeko eta prozesuak aurrera jarraitu ahala proposamen hauek bide luzeagoa izan dezaten.

Ezarritako lege-, teknika-, ekonomia- eta gobernantza-baldintzak bete zituzten proposamenek bakarrik egin zuten aurrera hurrengo fasera, eta labur-labur jasotzen dira aurrerago.

Helburua:

Prozesuan zehar jasotako proposamenen berrikusketa kolektiboa, proposamenen azterketa eta iragazketa, AuzoEkin prozesuaren esparruan oinarrituta, ondoren 6. tailerrean lehenesteko.

Proposamenak

AE1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIODIBERTSITATEA

Zk.	Proposamena
AO1.1	Auzoko berdeguneak handitzea, zatituta dauden eremuak elkartuz. Auzoko parketik, BOXaren atzeko aldetik hortik Bonbereneara eta hortik zirkura. Zirkua dagoen lekuan berdegune bat jarri. Bide zaharra berreskuratzea (mapan markatua)
AO1.2	Auzoko berdeguneak handitzea, Zirkuko zabalgunea parke bihurtuz.

AE2. HIRI EREDUA

Zk.	Proposamenak
EA2.1	Aparkaleku guztiak konpondu eta asfaltatzea. • Anbulatorio zaharrekoak zuloak ditu. • Hondoratuta dauden arketak konpontzea. • Elbarrientzako plazen irisgarritasuna hobetzea. • Parkeko sarreran badena jartzea, haur txikiak pasatzen direlako.
AE2.2	Auto-karabanen parking-eko zerbitzuak hobetzea. Bainu auto-garbitzaile bat, argiztapena eta mahaitxo bat jartzea.
AE2.3	Ferialeko eraikinaren segurtasuna hobetzea, eta kristalak eror ez daitezen premiazko babes-neurriak hartzea.
AE2.5	Zirkua dagoen plazatik auzoaren beste alderaino oinezkoentzako bidea eta bidegorria egitea berdegunetik, argiteria egokiarekin eta erreka garbituz, bide polita izan daiteke.
EA2.7	Garbiketa eta oinarritzko mantentze-lanak (premiazkoa)
AE2.9	Zuberoa auzoko 1. zenbakiko tenderetea itxi.
AE2.10	Udalak enpresa hutsak eros ditzala. Desjabetu
AE2.11	Elosegi parkean komun publikoak eta iturriak jartzea.
AE2.13	Zirku aldeko aparkalekuan argiztapena eta segurtasuna hobetzea. (Mapa. 2.13) Argi indartsuagoak, zuriagoak, jarri, eta udaltzaingoak egunero, arratsalde-gau aldera eta asteburuetan pasa daitezen.
AE2.17	Haur txikientzako jolas ekipamenduak (zabuak) jartzea Zuberoa aldean.
AE2.14	Eraikin hutsen jabeei mantentze-lanak eskatzea
AE2.15	Parkean banku gehiago jartzea. Parkearen gaineko gunek asfaltatua, mendirantz, bi banku eta beste bi Txorre aldean.
AE2.16	Kaleen izendapenen irizpideak argitu, berrikusi eta bateratzea. Bai seinaleztapen fisikoan, bai plano eta udal baliabideetan, bai tresna digitaletan (google maps). Honekin batera doa idatzia.
AE2.17	Elosegi parkerako seinalizazioa.

AE3. KLIMA-ALDAKETA

Zk.	Proposamena
EA3.1	San Estebango parkean (haurren parkean) estalitako karpa edo egitura jartzea. Alondegikoa edo Tolosako erdiguneko parke handikoa bezalakoa, edo Amaro, edo Larramendi.
AE2.15	Mapan izartxo urdinez markatuta dauden 4 eserlekuen inguruan egitura estaliak jartzea, adineko jendea eurtik babesteko esertzen direnean. Besteren bat jarri.

AE4. BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

Zk.	Proposamena
AE4.1	

AE5. MUGIKORTASUNA

Zk.	Proposamena
AO5.2	Ferialeko espaloia zabaltzea eta argiztapena handitzea.
AO5.3	Ferialeko kalea oinezko bihurtzea edo oinezkoei lehentasun handiagoa ematea.
AO5.4	Autobus geltokia, auzoan ez dago zerbitzurik.
AO5.5	Parkearen sarrera eta inguruko espaloiak eta errepideak egokitzea irisgarritasuna bermatzeko.
AO5.6	Taberna atzeko aldean dauden aparkaleku eta ordenamendu arazoak zuzentzea.

AE6. GIZARTE-KOHESIOA

Zk.	Proposamenak
AE6.1	Bilerak Ukrainako komunitatearekin, kohesionatzeko
EA6.2	Kulturartekotasun Plan bat, jatorri ezberdinetako bizilagunen inklusioa eta auzoko kulturarteko harremanak lantzeko. - Noizean behin bilerak eta ekintzak egin jatorri ezberdinetako jendea erakartzeko. - Banderez gain, nazionalitate ezberdinetako kolore eta ikurrak ezagutzea, haiekin auzoan zerbait egiteko. - Janariak, dantzak eta hainbat tokitako ohiturak partekatzeko jarduerak.
EA6.4	Udalak baliabideak ematea Auzo Elkarteari, deialdiak eta informazioak arabieraz eta ukraineraz ere zuzen itzuli ahal izateko
AE6.8	Auzoko jaietan kulturarteko ekintzak egin. Jatorri ezberdineko jendea etorriko den auzo elkartean, jaiak elkarrekin antolatzeke.
AE6.9	Kulturarteko jarduerak (antzerkia, sormen-tailerrak)
AE6.5	Parkeko sarreran panelak jarri, auzoko jendeak bere deialdiak jar ditzan.
AE6.3	San Esteban kaleko 7. zenbakiko fatxadan, Elozegi parketik gertu, mural bat margotzea modu parte-hartzailean.
AE6.11	Auzo-deialdiak daudenean, zehaztu ez dela soilik jabeentzat, baizik eta auzoan bizi diren pertsonentzat.
AE6.13	Haurtxoko edo gazteleku bat BOXean edo umeentzako ekintzak egiteko ondo kokatutako lokal batean. Gune horretako jarduera Kulturartekotasun Planarekin eta AE6.9 proposamenarekin lotzea

AE6.14	Diagnostikoan atera den auzoaren “argazkia” zabaltzea, grafika eta irudiekin.
AE6.15	Udalaren laguntza eta tresnak jasotzea auzoko bizikidetza dinamizatzeko. Kohesioa, inklusioa, itzulpen zerbitzuak... Udalak kontuan izan dezala San Esteban bere programazioan, eta egin ditzala jarduerak hemen eta ez beti beste auzo batzuetan: Kontzertuak, azokak, hitzaldiak, etab.
AE6.16	Auzoko eragileen artean sareko ekimenak bultzatzea eta erreferentziazko espazio komun bat bilatzea.
AE6.17	Lokal barruan haurrentzako gune bat sortzea, familien parte-hartzea errazteko.
AE6.18	Parte-hartzea sustatzeko dinamika eta jarduera iraunkorrak sortzea: Aniztasun gastronomikoko egun tematikoak edo ipuin kontalariak (hizkuntzak eta kulturak)

AE7. EKOIZPEN- ETA EKONOMIA-EREDUAK

Zk.	Proposamenak
AE7.1	

AE8. ETXEBIZITZA

Zk.	Proposamenak
AE8.1	Hiri-plangintza harmonikoa, etxebizitza berriak gaur egungoekin bat etorriko dituen eta auzoa masifikatuko ez duena.
AE8.2	Etxebizitza berrien proiektuaren zain aspalditik.
EA8.3	Legez kanpo bizi diren pertsonak dauden eraikina desjabetzeko formula aurkitzea, horrek segurtasun falta sortzen bait du.

AE9. TRANTSIZIO DIGITALA

Zk.	Proposamena

10EE. GOBERNANTZA ETA KALITATE DEMOKRATIKOA

Zk.	Proposamena
EA10.1	Udal teknikarien presentzia fisikoa auzoan. Aurrez aurreko harremanek lagundu egiten dute, nolabait horri eusteko eskatzen da prozesu hau amaitzen denean. Parte hartzeko prozesua amaitzen denean, jar zaitezte elkartearekin harremanetan, nola dauden eta zer behar duten galdetzeko.
AE10.1 bis	Auzoan erreferentziazko pertsona bat izatea, udalarekiko bozeramaile gisa. Eta alderantziz.
EA10.2	Lantzen ari garen planari eustea, udal gobernua aldatu arren, auzoekin egindako lanak errespetatzea. Aurrera begira barrioak jarri dituen lehentasunak kontuan hartzea eta edozein aldaketa politikorekin mantentzea. Emaitzak ikusi nahi ditugu. Planek jarraipena izatea. Ekintza zehatzak.
AE10.3	Udalarekin harremanetan jartzeko izapideak erraztea, inzidentzia, eskaera eta diru-laguntza guztietan. (10.1 artikuluekin lotuta)

	Elkarteko lehendakariak gain, beste pertsona batzuk ere Udalarekin komunikatu ahal izatea (legezko ordezkariek, erraztasunak emanez).
	Izapide informatikoei dagokienez, beste pertsona batek elkartearen ordezkatzea erraztea, eta beti presidentearen mende egon behar ez izatea. Belaunaldien arteko arrakala digitalaren alde.
EA10.5	Auzo-deialdiak daudenean, zehaztu ez dela soilik jabeentzat, baizik eta auzoan bizi diren pertsonentzat.
EA10.6	Auzotarren ekimenak sustatzeko oztopo burokratikoak murriztea. Berrito ere belaunaldien arteko arrakala digitalaren gaia. 10.1. artikuluekin lotuta

